

JAUTARKOL SARIA

1. SARIA eta ERRENERIAKO ONENARI SARIA

IZENA: Zigor Goicoechea Retegui

IZENGOITIA: "Aigobel"

LANA: "Genovako kronika madarikatuak"

NONGOA: Erreneria

Zuretzat Nere... eta zuri esker.



*"Per me si va ne città dolente,
per me si va ne l'eterno dolore,
per me siva tra la perduta gente.*

**Giustizia mosse il mio alto fattore:
Fecemi la divina podestate,
La sapienza e' l primo amore.**

**Dinanzi a me non fuor cose create
Se non etterne, e io eterno duro.
Lasciate ogne speranza, voi ch'intrate "**

– Dante Alighieri –

"Divina Commedia" Inferno Canto III
(Dantek infernuko atean irakurria)

**Lurrean zerua ezartzeko ahaleginak
Infernua sortu du beti.**

– Karl Popper –

GENOVAKO KRONIKA MADARIKATUAK

Palazzo Ducale-tik porturako bidean,
badago gauak argitzen duen auzo bat.
San Lorentzo katedralaren irripan
hiru aukera dauzka
largipeko turistak:

Lehena.
Etorritako lekutik itzultzea.
Zilegizkoa, eta zuhurra.

Bigarrena.
Porturainoko bidea jarraitzea.
Eta gero zer? Itsasoa? Lehen aukera?

Hirugarrena.
Ezker-eskuin galtzen diren karrika estu
eta intentziaz argiztatuetan,
kalekantoien xuxurlak entzutea;
argiek, gau hartan,
bi maitale haien itzalak
txontxongilo bihurtu zituzten lekuan.

Aspaldidanik
urteen ximurrak direla medio,
Mariak,
bokazioz,
gorputzen beste beharrei asetzeari ekin dio.

Francesco berriz,
gehiegikerien esklabu,
itsu bezain arlote.

Virgiliorik ez zitzaion azaldu,
azaltzeko,
infernu honetako
madarikatuak salbatzeko,
txalupa faltan dabilela Karonte.

Eta Genovak zioen...

Bizi, bizi,
bekatu eta malezi,
zizareen entremes bihurtzen zareten arte.
Zerurik ez gero espero,
infernua bero,
danbolineko gaztainak
deabruak jaten dizkik gero.

Leizearen atarian,
behar ez luketen izanen izanak
piztu zituen betirako,
(ignis aeternus)
zauri sendaezin bihurtu ziren
(laceratio inxesa)
maitale heien
ilunpeko esanak:

Dove sei?

Sono qui...com te.

Eta berak...
ilargipean turista izaten jarraitu zuen,
Beatrizen ditzira
zerutik jausi zen arte.

2. SARIA

IZENA: Jon Martin Etxebeste
IZENGOITIA: "Adibidez"
LANA: "Herioren koadernotik"
NONGOA: Oiartzun



HERIOREN KOADERNOTIK

Soy feliz, soy un hombre feliz,
y quiero que me perdonen por este día
los muertos de mi felicidad.
(Silvio Rodriguez)

Denborak ahaztutako taberna zen hura.
Aluminiozko barrak
laztanten zuen
zerbitzariaren eskuzapia.
Pintura gose diren paretak,
zuri izandako argazkiak.

Badira begiradak
zeharkatzera ausartzen ez diren
kristalak.
Kristal paretak,
barrutik barrura
eta kanpotik kanpora.

Barruan,
aitonak musean.
Gaur ere aisa
gailendu da
aitona sudurgorria.

Ilundu duela
dio seigarren partidaren
amaierak

Fluoreszentea,
beldur da;
beldur da aitona
sudurgorria ere.

Partidarik amaitu gabe
iraun nahi luke oraindik.



Badaki,
gero
kanpora behar duela
irten,
eta kalean...
Kalean
denbora dauka zain. (Pixka bat)

Bizitza aukeratzea da.
Hiltzea, aukera bat;
aukera bakarra
azkenean.

Denak berdinak gara
lurretik bi zentimetrora.
Hogeita hamar metro gorago
hartutako erabakiak
bereizten gaitu.

Sekula ez zuen
hamar zentimetro baino
soka luzeagorik
eskutan izan.

Binaka eskatzen zituen
lasaigarriak
farmazian.

Pistolei
adierazpen askatuna
ukatu zien.

Ez zuen
inoiz
laugarren pisu batetik
behera begiratu nahi izan.

Etxeko labanak
kamustu zituen.
Badaezpada.
Inoiz ausardiarik izaten bazuen ere...
Ez zen fio bere buruaz.
Beste proiektu batzuk zituen...
Gutxi egindako okela zati hau
zergatik ezin zuen moztu galdetzea,
adibidez.